

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

taldea: Ibai Aguado, Markel Bellido, Hamuda eta Unai Torres

2.EM2D

ENERBIDEA

Gure proiektua, *Enerbidea*, hainbat jarduera funtsezko behar ditugu, gure negozio-eredua ondo funtziona dadin. Lehenik eta behin, errepideetan instalatuko ditugun plaka bereziak diseinatu eta garatu behar ditugu. Horretarako, ingeniaritza-lana, material egokiak aukeratzea eta prototipoak probatzea ezinbestekoak dira.

Behin diseinua eginda, beste jarduera garrantzitsu bat da produkzioa eta fabrikazioa. Plakak modu eraginkorrean, iraunkorrean eta kostu egokian fabrikatu behar ditugu, gero errepide ezberdinetan instalatzeko moduan egon daitezzen. Ondoren, instalazio-lanak egin behar dira: plaken kokapena planifikatu, trafikoari ez eragiteko obrak antolatu eta sistema elektrikoa errepidearekin konektatu.

Sistema martxan dagoenean, ezinbestekoa da energia sortu eta biltegitatzeko jarduera teknikoa. Autoek sortzen duten presioa elektrizitate bihurtu eta baterietan gordetzea behar bezala kontrolatu behar da. Horrez gain, sistemaren mantentze-lanak egitea ere funtsezkoa da, plaken egoera, iragazgaiztasuna eta eraginkortasuna bermatzeko, baita euriko putzuen xurgapena ondo funtzionatzen jarrai dezan ere.

Energia berriztagarria herritarrei eta administrazioei eskaintzeko, kontrol eta monitorizazio digitaleko jarduerak behar ditugu: datuen bilketa, energia-ekoizpenaren jarraipena eta eraginkortasunaren analisia. Honek aukera emango digu sistemaren errendimendua handitzeko eta arazoak garaiz antzemateko.

Gainera, gure negozioa zabaltzeko, ezinbestekoak dira merkaturatze eta komunikazio jarduerak. Udalekin, enprekin eta bezero potentzialekin harremanetan jartzea, gure sistemaren abantailak azaltzea eta energia garbiaren erabilera sustatzea gure proiektuaren arrakastarako giltza dira. Horri lotuta, administrazio publikoei aurkezpenak egitea eta laguntza ekonomiko edo teknologikoak bilatzea ere jarduera garrantzitsuak dira.

Azkenik, gure proiektua 2030 Agendarekin bat datorrenean, beharrezkoa da jasangarritasun-ikuskaritzak eta ziurtagiriak lortzea, gure sistemak ingurumenari kalterik egiten ez diola frogatzeko eta energia garbia sustatzen jarraitzeko.

• ENERBIDEA

